


Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



2025eko maiatzean, berriz ere behera egin du Lanbiden erregistratutako langabeen kopuruak, eta **6.369 langabe zenbatu dira Donostian (2.775 gizon eta 3.594 emakume), apirilean baino 123 pertsona gutxiago.**

- Langabezia % **1,9 egin du behera apirilaren aldean.**
- Langabezia % **2,4 egin du behera 2024ko maiatzaren aldean.**

Maiatzean, langabeen kopuruak behera egin du, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. Gainera, apirilako datuekin alderatuta, langabeziaren murrizketa antzekoa izan da bi generoetan (-%1,9 emakumeentzat eta -%1,8 gizonentzat).

Aurreko urteko hila bete beraren aldean, langabeen kopuruak behera egin du ere, % 2,4 (155 langabe gutxiago). 2024ko apirilarekin alderatuta, gizon langabeen eta emakume langabeen kopuruak behera egin badu ere, gizonen langabeziak nabarmen jaitsiera handiagoa izan du emakumeena baino, azkenengo hau ez baita asko aldatu (% -5,1 gizonetan eta % -0,2emakumeetan).

Langabezia tasa EUSTATEN arabera (2025 1. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,2 martxoan), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziazat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa dela, 2025ko lehenengo hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena duen lurralde historikoak. Euskal hiriburuaren artean berriz Gasteiz da Langabezia tasa txikiena duena.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko lehenengo hiruhileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,4	6,1	5,7
Donostia	7	7,2	7,1
Bizkaia	8	8	8
Bilbo	8,7	9,3	9
Araba	5,8	6,5	6,1
Gasteiz	6,4	6,7	6,5
EAE	6,8	7,1	7

Eustatek, Lanbidek ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurketa eta unitate txikietan desglosatzean zehaztasuna galtzen du neurketak.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,0	7,6	9,4
Gizonen langabezia indizea	6,3	6,4	7,9
Emakumeen langabezia indizea	7,6	8,8	10,9
Genero arrakala	1,38	2,36	2.99

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea % 7-ra jaitsi da (7,4 otsailean, 7,2 martxoan eta 7,1 apirilean) % 6,3 gizonen artean eta % 7,6 emakumeen artean (ehuneko 1,4 puntuko genero-arrakala).

	Langabezia indizea	EAErekiko aldea
Gipuzkoa	7,6	-1,8
Donostia	7,0	-2,4
Bizkaia	10,1	0,8
Bilbo	11,8	2,5
Araba	10,5	1,2
Gasteiz	11,0	1,6

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, **Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburuak.**

		Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.492	% 100	% -1,9
Gizonezkoak	2.827	% 44	% -1,8
Emakumezkoak	3.665	% 56	% -1,9
Gipuzkoa	27.748	% -1,7	% -1,3
EAE	104.659	% -2,0	% -1,7

Apirilaren aldean, langabeen kopuruak behera egin du Gipuzkoan eta EAEn ere (% -1,7 eta % -2,0).

2024ko apirilarekin alderatuta, Gipuzkoako eta EAEko langabeen kopuruak ere behera egin du (% -1,3 eta % -1,7), baina jaitsiera horiek Donostiakoa baino apalagoak dira (% -2,4).


JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2025ko lehenengo hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	60,7	53,3	56,9
Donostia	61	53,5	56,9
Bizkaia	59,4	51,5	55,2
Bilbo	60,4	51,8	55,9
Araba	62,2	51,4	56,6
Gasteiz	62,4	50,5	56,2
EAE	60,2	52	56

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2025ko lehenengo hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	57,4	50,1	53,6
Donostia	56,7	49,6	52,8
Bizkaia	54,6	47,3	50,8
Bilbo	55,1	47	50,9
Araba	58,6	48	53,2
Gasteiz	58,4	47,1	52,6
EAE	56,1	48,3	52,1

Langabezia generoa eta adinaren arabera



Maiatzean, langabeen kopuruak behera egin du adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoen adin-tartean izan ezik. 2025eko maiatzaren 31n, Donostiak honako hauek ditu:

- 55 urtetik gorako 2.256 langabe erregistratu dira Lanbiden (-20 apirilaren aldean).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.467 langabe erregistratu dira Lanbiden (-13 apirilaren aldean).
- 35-44 urte bitarteko 1.115 langabe erregistratu dira Lanbiden (-43 apirilaren aldean).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.049 langabetu erregistratu dira Lanbiden (-54 apirilaren aldean).
- 25 urtetik beherako 482 langabe erregistratu dira Lanbiden (+7 apirilaren aldean).

LANGABEZIA SEXUA ETA ADINAREN ARABERA:

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	% 57,7	% 42,3	-15,4
25 eta 34 urte bitartekoak	% 45,1	% 54,9	9,8
35 eta 44 urte bitartekoak	% 38,3	% 61,7	23,4
45 eta 54 urte bitartekoak	% 43,5	% 56,5	13,0
55 urtetik gorakoak	% 42,5	% 57,5	15,0

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 30 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREKIKO EGOERA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonak beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datu historikoek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.

Egoera horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita.

Zehazki, maiatzeko datuen arabera, 35-44 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 23,4 puntukoa da.


Horren arrazoia izan daiteke adin-tarte hori aitatasun, amatasun eta seme-alaben heziketarekin asoziatzen dela. Era berean, badirudi tradizionalak emakumei seme-alaben zaintza eta heziketa erantzukizun handiagoa esleitu dieten genero-erolek indarrean jarraitzen dutela, azken urteetan berdintasunean aurrera egin duten arren. Ondorioz, emakumeek lan-merkatuan duen parte-hartzeak eragina izaten jarraitzen du.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonen baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (Lanbide Heziketa eta unibertsitatea) nabarmen gaintzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena adin-tarte guztietan.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorako adin-tartean) gizonak baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeen enplegua lortzea zailtzen duten oztopoak eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeek sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ia ehuneko 17 puntu handiagoa da.

Pertsona langabetuen hezkuntza maila



Langabeen % 43,9ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 18,7k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7,5 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarritzko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, eskura ditugun datuetan oinarrituta, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonek baino kualifikazio handiagoa dutela.**


PERTSONA LANGABEAREN PROFILA:

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%58,5	%54,8	%55,6
30 urtetik beherakoak	%24,0	%25,9	%24,8
Iraupen luzeko langabezia	%44,8	%45,7	%50,1
Atzerritarrak	%15,4	%20,9	%19,5
EB-ko atzerritarrak / Atzerritarrak	%16,1	%16,3	%14,8
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%18,7	%11,2	%11,2
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%43,9	%52,9	%55,3

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:




- **Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzerritar jatorriko langabe gutxiago ditu.**
- **Donostian, EBtik datozen atzerritar langabeen proportzioa, atzerritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 15,5), Gipuzkoakoan erregistratutakoa (% 16,2) baino zerbait txikiagoa eta EAEn erregistratutakoa baino handiagoa (% 14,7).**

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzailerek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Maiatzean, emakume langabeen eta gizon langabeen kopuruak behera egin duen hilabetean, **emakumezkoen kontratazioa gizonezkoena baino handiagoa izan da beste behin.**

Hala ere, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdiak lanaldi partzialekoak dira** (% 52), eta **gizonek sinatutako kontratuen % 35 baino ez dira mota horretako kontratuak.**

Azkenik, **kontratatutako pertsona guztietatik, % 10,8 emakume atzerritarrak ziren** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,6 dira).

Maiatzean 7.926 kontratu sinatu dira, hau da, apirilean baino % 22,4 kontratu gehiago (1.453 kontratu gutxiago).

2024ko maiatzaren aldean, 325 kontratu gutxiago sinatu dira, hau da, kontratazioak % 3,9 egin du behera.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.396	%42,8	4.530	%57,2	7.926
Aldi baterakoak	2.531	%41,3	3.590	%58,7	6.121
Mugagabeak	865	%47,9	940	%52,1	1.805
Lanaldi partziala	1.182	%33,6	2.337	%66,4	3.519
Lanaldi osoa	2.214	%50,2	2.193	%49,8	4.407

Kontratu horiekin 5.548 pertsona kontratatu dira, hau da, apirilean baino % 15,7 gehiago (752 pertsona gehiago).

2024ko maiatzaren aldean 195 pertsona gutxiago kontratatu dira, hau da, kontratatutako pertsonen kopuruak % 3,4 egin du behera.


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,4 kontratu sinatu ditu.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.470	%44,5	3.078	%55,5	5.548
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,5		1,4
24 urtetik beherakoak	670	%44,8	824	%55,2	1.494
25 eta 34 urte bitartekoak	727	%46,5	838	%53,5	1.565
35 eta 44 urte bitartekoak	449	%45,3	542	%54,7	991
45 eta 54 urte bitartekoak	407	%40,9	589	%59,1	996
54 urtetik gorakoak	217	%43,2	285	%56,8	502
Atzerritarrak	575	%48,8	604	%51,2	1.179

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino.
- Sinatutako kontratuen % 22,8 mugagabeak ziren (apirilean %25,1).
- Sinatutako kontratuen % 44,4 lanaldi murriztukoak dira. Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 65).
- Kontratuen % 55,1 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte.
- Kontratuen % 27 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte. Horietatik % 58,3 emakumeak dira.
- Kontratatutako pertsonen % 21,3 atzerritarrak ziren. Gainera, kontratatutako atzerritar jatorriko pertsonen % 51 emakumeak ziren.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua zertxobai handitu du eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 20,2** sinatu ditu (%13,7 otsailean, %17,3 martxoan eta % 19,5 apirilean).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 37,7** sinatzen ditu (% 23,7 otsailean, % 30,3 martxoan eta %36,1 apirilean). Beste behin, **sektore horretan sinatu da kontratu mugagabeen bolumen handiena**, 681 kontratu mugagabe (588 apirilean).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuak % 42,6 mugagabeak dira** (% 44 otsailean, % 42 martxoan eta % 46,5 apirilean)
- Kontratazioaren **partzialtasuna murriztu egin da ostalaritza sektorean**. Sinatutako kontratuak % 50,8 lanaldi partzialekoak dira (% 62 otsailean, % 57 martxoan eta % 51,3 apirilean).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuak % 11,5 sinatu ditu** (% 9,9 martxoan eta % 13 apirilean).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 15,3** (% 12,1 martxoan eta % 14,7 apirilean) eta **lanaldi partzialeko kontratuak % 16,3** sinatu ditu (%14,1 martxoan eta %19,4 apirilean).
- Merkataritzan sinatutako kontratuak % 30,3 mugagabeak dira** (%30 otsailean, %29 martxoan eta %19,4 apirilean).
- Merkataritzan erregistratutako kontratuak % 62,7 lanaldi partzialekoak dira** (% 67 otsailean, %63 martxoan eta %64,6 apirilean).

¹**SEIC:** SEIC terminoak "Ezagutzeko Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonei zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jarduerak intentsiboak eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiratzea (346 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (32 kontr.), higiezin-jarduerak (14 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.206 kontr.), administrazioa publikoa (38 kontr.), beste zerbitzu batzuk (118 kontr.) eta etxeetako jarduerak (14 kontr.).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	4 (%0,2)	%50,0	%50,0
Eraikuntza	65 (%3,6)	%95,4	%4,6
Industria	34 (%1,9)	%73,5	%26,5
ostalaritza	681 (%37,7)	%54,8	%45,2
Merkataritza	277 (%15,3)	%36,5	%63,5
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	71 (%3,9)	%32,4	%67,6
Osasuna eta gizarte zerb.	180 (%10,0)	%18,3	%81,7
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	295 (%16,3)	%49,5	%50,5
		%50,2	%49,8

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	0 (%0,0)	-	-
Eraikuntza	9 (%0,3)	%66,7	%33,3
Industria	103 (%2,9)	%63,1	%36,9
ostalaritza	811 (%23,0)	%38,5	%61,5
Merkataritza	573 (%16,3)	%29,7	%70,3
SEIC - PERTSONAK			
Hezkuntza	303 (%8,6)	%22,8	%77,2
Osasuna eta gizarte zerb.	661 (%18,8)	%15,6	%84,4
SEIC - ENPRESAK			
Zerbitzu operatiboak	295 (%8,4)	%44,7	%55,3
		%42,5	%57,5

Behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen du hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,3 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).


Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Industria, hezkuntza, eta osasun / gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuak % 90, % 86, eta % 88 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan eta hezkuntzan. Gainera, osasun sektorean, non kontratuak % 46 lanaldi partzialekoak den, mota honetako kontratuak % 84 emakumei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua dugu honako hau).

Emakumeek ez dute ia presentziarik industriak (%31) eta eraikuntzak (% 8) eskaintako kontratazioan. Hala ere, hezkuntzako kontratuak % 77 eta osasun-sektoreko kontratuak % 75 emakumeen kolektiboarentzat dira.

DSBEaren hartzaileak


Maiatzean zehar **3.567 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (apirilean baino 11 pertsona gehiago).



Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 60,6 emakumeak dira**.
- **55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 48 dira**.
- DSBEa jasotzen dutenen % 22,4k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 30 goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EAEREkin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



DSBE-AREN HARTZAILEAREN PROFILA:

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,5	%0,9	%0,6
20 - 24 urte	%2,5	%2,7	%2,8
25 - 29 urte	%4,6	%5,3	%5,2
30 - 34 urte	%6,3	%7,7	%7,5
35 - 39 urte	%8,4	%9,6	%9,3
40 - 44 urte	%9,4	%10,6	%10,4
45 - 49 urte	%9,8	%11,5	%10,9
50 - 54 urte	%10,4	%11,2	%10,8
55 urtetik gora	%47,9	%40,6	%42,5
barrutitik kanpora	-	-	-
Derrigorrezko ikasketak	%53,5	%61,2	%58,9
Batxilergoa	%8,6	%6,8	%6,7
Lanbide Heziketa	%22,2	%18,1	%20,4
Unibertsitatea	%7,8	%4,6	%5,0
Informaziorik gabe	%7,9	%9,3	%9,0
Lanaren osagarritasuna	%22,4	%20,4	%21,6
Oinarrizko DSBE modalitatea	%77,6	%79,6	%78,4
Gizonak	%41,9	%42,1	%41,9
Emakumeak	%59,3	%57,9	%58,1

DSBE-AREN HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA:

Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzokide guztiekiko %
Aiete	14.066	133	%0,95
Altza	19.517	564	%2,89
Amara Berri	29.377	428	%1,46
Antiguo	13.754	135	%0,98
Añorga	2.448	31	%1,27
Ategorrieta-Ulía	3.874	69	%1,78
Centro	21.352	349	%1,63
Egia	14.208	353	%2,48
Gros	17.563	290	%1,65
Ibaeta	9.721	124	%1,28
Igeldo	1.040	8	%0,77
Intxaurrondo	15.010	508	%3,38
Loiola	6.073	179	%2,95
Martutene	2.592	77	%2,97
Miracruz-Bidebieta	8.565	295	%3,44
Miramón-Zorroaga	2.302	22	%0,96
Zubieta	292	1	%0,34